



**Europako eskualdeak, mundu mailako erronken aurrean:
2020 horizontea**

• Europako erronka handiak

Europako Batzordearen Eskualdeko Politika Zuzendaritzako zerbitzuek 2020 horizontean Europako eskualdeen mundu mailako erronken ebaluazioari buruzko dokumentua egin dute (eta azaroaren 14ko datarekin argitaratu).

Etorkizuneko azterketa hori input garrantzitsua da komunitateko kohesio politikaren diseinua 2013an amaitzen den egungo programazio aldia baino haratago bideratzeko.

Identifikatutako erronken artean, lau hautatu ditugu, Europako eskualdeen etorkizunerako duten garrantzia kontuan hartuta. Hauek dira lau erronka horiek:

• **Mundializazioa edo globalizazioa**

Alde batetik, aurrerapen zientifiko eta teknologikoaren bultzadarako giltzarria da; mugigarritasunaren, lehiakortasunaren eta berrikuntzaren aldetik, merkatu berri izugarriak ireki direnez, sortutako aukeren ondorioz eta kontsumitzaileen bizi maila hobea izan dadin lagunduz.

Beste alde batetik, egitura mailako aldaketara eta horri lotutako aldaketa sozialetara etengabe egokitzeko gaitasuna frogatzen du eta ekonomia, gizarte, ingurumen, energia eta segurtasunaren arloko erronka berriak sartzen ditu.

• **Eboluzio demografikoa**

Bilakaera horrek Europako gizartearen egitura eta oreka aldatuko du, eta garrantzi handiko gaiak azaleratuko ditu, hala nola baliabide ekonomikoen eragingarritasuna edo belaunaldien arteko berdintasuna. Era berean, migrazio presioak nabarmen izango du eragina, munduko eskualde txiroenen gertutasunari lotuta.

• **Klima aldaketaren eragina**

Ingurumenean duen eragina dela eta, negutegi efektuko gasen igorpena murriztu behar da eta aldaketa horretara egokitzeko neurriak hartu behar dira.

• **Energia**

Energia ziurra, etengabea eta lehiakorra izatea da etorkizuneko erronka handienetako bat. Eskaintzaren mugen, mundu mailako eskaera gero eta handiagoaren eta igorpenak murrizteko beharraren eraginez, karbono tasa baxuko ekonomia konfiguratu behar da.

Analisia lau erronka horietan oinarritzen den arren, garrantzi handiko beste erronka batzuk ere aipatzen dira, besteak beste, hauek:

- Informazioaren gizartera sarbidea izatea eta
- Garraioen interkonektibitatea



• Europako eskualdeak, mundu mailako erronken aurrean: ikuspegi orokorra

Europar Batasunak datozen urteotan aurre egin beharko dien erronkek hura osatzen dugun eskualde guztioi eragiten digute, nahiz eta neurri desberdinean eta aurrez ikus daitezkeen inpaktuak askotarikoak izan.

Hori dela eta, lehen aipatutako dokumentuan bildutakoaren arabera, eskualde guztiek topatu eta hartu beharko dituzte tokian tokiko konponbideak mundu mailako erronkei aurre egiteko. Analisia adierazitako oinarritzko erronketara mugatuta, ohar hauek egin daitezke:

• Globalizazioa

Eskualdeen urrakortasuna ekoizpenaren, enplegu tasaren eta herritarrek lortutako trebakuntza mailaren balioespenetan oinarrituta egin da.

Beste arlo garrantzitsu batzuk ez dituzte aztertu, hala nola mundializaziora egokitzeko gaitasuna, batez ere, I+Gren arloan ekintzak edo berrikuntzak eginez.

Ekonomia lehiakorrenak eta berritzaileenak dituzten eskualdeak, hau da, produktibitate altua eta enplegu maila altua eta kualifikatua dutenak, hartzen dira globalizazioak mesede gehien egiten dien eskualde gisa, hala nola hirigune garrantzitsuak eta metropoli eremuak, ikasketa maila altuko pertsonak eta ezagutza eta produktibitate altuko industriak erakartzeko gaitasuna dutenak.

Eskualde horiek Europar Batasunaren iparraldean daude, batez ere Eskandinaviako herrialdeak eta Erresuma Batua dira.

• Aldaketa demografikoa

Eredu demografikoen aldaketarako urrakortasuna biztanleriaren hazkundera oinarri hartuta egiten da, adinekoen proportzioa eta lan egiteko adinean daudenen proportzioa kontuan hartuta. Ez ditu kontuan hartzen migrazioa, haien osaera edo etnizitate nahiz ezintasunari lotutako arloak eta beste arlo garrantzitsu batzuk.

Hori dela eta, eskualdeko eredu demografikoetan aniztasuna ikus daiteke, eta eskualdeen herenak atzerakada demografikoa izango duela aurrez ikus dezakegu. Beheraldi demografikoan dauden eskualdeek errenta maila baxua eta enplegu proportzio altua izan ohi dute, gainbehera doazen sektoreetan, eta gainera, eskaera ahula izateko aurreikuspena dute.

Modu gehigarrian, biztanleria gaztearen mugigarritasunak eredu demografiko dibergenteak eta errenten arteko desberdintasunak susta ditzake. Metropoli eremuak, oro har, prestatuagoak daude adin aktiboko biztanleria migrantea integratzeko, kanpoko nahiz barrukoa, baina era berean, polarizazio sozialarekiko eta suburbanizazio fenomenoekiko irekiagoak dira.

Erronka horren aurrean, eskualdeen urrakortasuna Europako lurralde osoan banatuta dago, eta Alemaniako ekialdeko eskualdeak eta Europako periferiako beste batzuk nabarmen daitezke.



- Klima aldaketa

Urrakortasunaren analisiak uholdeen eraginerako potentziala kontuan hartzen du, baita lehorte-
etarako arriskua, kostaldeko higadura eta ekosistema naturalekiko jarduera ekonomiko sentiko-
rrenen presentzia ere.

Klima aldaketaren inpaktuaren larritasuna urragarritasun fisikoarekin eta garapen ekonomiko-
aren mailarekin lotuta hartu da kontuan, hala nola naturaren eta gizakiaren egokitzapenerako
gaitasunarekin, osasun zerbitzuekin eta natura hondamendien zaintzarako mekanismoekin lo-
tuta.

Mediterraneoko eskualdeak, oro har, baldintza klimatikoen larriagotzea jasango duten lehenen-
goak izango direla uste dugu.

- Energia

Etxeetako energia kontsumoa, ekoizpen jardueraren energia eragingarritasuna, kanpoko ener-
gia mendekotasuna eta barneko karbonoaren intentsitate energetikoa erabakigarriak dira anali-
sian, erronka energetikoarekiko eskualde mailako urrakortasunari dagokionez.

Eskualde guztiek energia merkatuen aldaketekiko gero eta esposizio handiagoa dute, horniketa-
ren segurtasunari dagozkion arazoak agertuz, prezioen fluktuazioa eta eragingarritasun energe-
tikoa hobetzeko, negutegi efektuko gasak igortzea murrizteko eta, oro har, ingurumen iraunkor-
tasuna hobetzeko beharra.


Hala ere, sektore “energiboroen” gero eta mendekotasun handiagoa, energia berriztagarrien
ekoizpena eta garraiobideak ere erabakigarriak dira eskualde mailako ondorio potentzialetarako.

Ekialdeko eta hegoaldeko estatuetakoko eskualdeek arrisku horrekiko urrakortasun handiagoa
dute.





• Europako eskualdeak, mundu mailako erronken aurrean: Aurkibide laburtua



Aipatu lau erronken urrakortasun indizeen kalkulutik abiatuta, eragin indize sintetikoa edo eskualde bakoitzeko desafioak finkatu dira; horretarako, eskualde bakoitzak aurre egin beharreko erronka kopurua identifikatu da (erronka bakoitzak eragindako eskualdeen % 50 kontuan hartuz). Aipatu indize sintetikoa atxikitako irudian azalduta dago (0 erronkatik 4 erronkaraino, kolore intentsitate baxutik intentsitate handiagara).

Hori horrela, iparraldeko herrialdeekin alderatuta, Europa hegoaldeko eskualdeak nabarmentzen dira erronka kopuru handienari aurre egin behar dietelako.

Atxikitako koadroan ikus daitekeen moduan, per capita errenta maila altuena duten eskualdeak dira hobekien prestatuta daudenak, horrela, korrelazio positibo argia dago gutxien eragindako taldeetan, baina ez da berdin gertatzen gainerako eskualdeen kasuan.

Region ranked among the "first 100" for....	n° of Regions	avg GDP index (EU=100)	%pop EU 27	avg of the 4 index (1-100)
none of the 4 challenges	28	131	11	21
1 of the 4 challenges	70	110	25	30
2 of the 4 challenges	78	89	29	41
3 of the 4 challenges	54	86	19	53
All 4 challenges	37	84	16	66



• **Europako eskualdeak, munduko erronken aurrean: urrakortasun maila handiko eta txikiko eskualdeak**

Ondoren aipatutako lau erronkei dagokionez, urrakortasun maila altua eta baxua duten eskualdeen zerrenda dator; horretarako, horri dagokion urrakortasun globalaren indizea erabili da.

Aurrez aipatutakotik ondorioztatzen den moduan, bai iparraldeko herrialde garatuetako iparraldeko eskualdeak, bai garapen maila altuko herrialdeetako hirigune edo metropoli eremuak hartzen dituzten eskualdeak, nabarmendu egiten dira horien urrakortasun erlatiboa urriagoa delako.

Erresuma Batuko, Suediako eta Frantziako erdialdeko eskualdeak dira ondoen kokatutako lekuak, baita Danimarkako eskualdeak ere.

<i>Urrakortasun maila txikiko eskualdeak Aldaketa anitzekiko urrakortasun indizea</i>	<i>Indizea 0-100</i>
<i>Inner London (Erresuma Batua)</i>	<i>0</i>
<i>Stockholm (Suedia)</i>	<i>4</i>
<i>Outer London (Erresuma Batua)</i>	<i>4</i>
<i>Île de France (Frantzia)</i>	<i>10</i>
<i>Eastern Scotland (Erresuma Batua)</i>	<i>12</i>
<i>Övre Norrland (Suedia)</i>	<i>14</i>
<i>Sjaelland (Danimarka)</i>	<i>14</i>
<i>Midtjylland (Danimarka)</i>	<i>14</i>
<i>Syddanmark (Danimarka)</i>	<i>14</i>
<i>Nordjylland (Danimarka)</i>	<i>14</i>

Bestalde, hegoaldeko herrialdeetako eskualde periferikoenak eta garapen ekonomiko maila baxuagokoak dira urrakortasun indize altuagoa dutenak. Horien artean Bulgaria, Portugal eta Greziako zenbait eskualde nabarmendu behar dira.

<i>Urrakortasun maila handieneko eskualdeak Aldaketa anitzekiko urrakortasun indizea</i>	<i>Indizea 0-100</i>
<i>Notio Aigaio (Grezia)</i>	<i>73</i>
<i>Voreio Aigaio (Grezia)</i>	<i>75</i>
<i>Ionia Nisia (Grezia)</i>	<i>78</i>
<i>Alentejo (Portugal)</i>	<i>80</i>
<i>Severoiztochen (Bulgaria)</i>	<i>82</i>
<i>Algarve (Portugal)</i>	<i>83</i>
<i>Yuzhen tsentralen (Bulgaria)</i>	<i>88</i>
<i>Severen tsentralen (Bulgaria)</i>	<i>90</i>
<i>Yugoiztochen (Bulgaria)</i>	<i>91</i>
<i>Severozpaden (Bulgaria)</i>	<i>100</i>


Ondoren, lau erronka horien aurrean, urrakortasun mailaren araberako eskualdeen zerrenda dator, erronkaren eragina Europar Batasuneko eskualde mailan ikustea ahalbidetzen duen irudiarekin batera.



- Europako eskualdeak, erronka demografikoaren aurrean: urrakortasun maila handiko eta txikiko eskualdeak

Urrakortasun maila handiko eta txikiko eskualdeak Aldaketa demografikoa	Indizea 0-100
<i>Inner London (Erresuma Batua)</i>	0
<i>Outer London (Erresuma Batua)</i>	0
<i>Východné Slovensko (Eslovakia)</i>	9
<i>Kanariak (Espainia)</i>	10
<i>Malopolskie (Polonia)</i>	10
<i>Dresden (Alemania)</i>	73
<i>Itä-Suomi (Finlandia)</i>	75
<i>Sachsen-Anhalt (Alemania)</i>	85
<i>Chemnitz (Alemania)</i>	95
<i>Severozpaden (Bulgaria)</i>	100

Demography vulnerability index, 2020






- Europako eskualdeak, globalizazioaren aurrean: Urrakortasun maila handiko eta txikiko eskualdeak

Urrakortasun maila handiko eta txikiko eskualdeak Globalizazioa	Indizea 0-100
<i>Berckshire, Buckinghamshire and Oxfordshire (Erresuma Batua)</i>	0
<i>Surrey, East and West Sussex (Erresuma Batua)</i>	5
<i>Inner London (Erresuma Batua)</i>	9
<i>Stockholm (Suedia)</i>	9
<i>Eastern Scotland (Erresuma Batua)</i>	9
<i>Nord-Est (Errumania)</i>	95
<i>Sud-Est (Errumania)</i>	97
<i>Yugoiztochen</i>	97
<i>Norte (Portugal)</i>	99
<i>Yuzhen tsentralen (Bulgaria)</i>	100


Globalisation vulnerability index, 2020





- Europako eskualdeak, klima aldaketaren aurrean: Urrakortasun maila handiko eta txikiko eskualdeak


<i>Urrakortasun maila handiko eta txikiko eskualdeak Klima aldaketa</i>	<i>Indizea 0-100</i>
<i>Itä-Suomi (Finlandia)</i>	<i>0</i>
<i>Pohjois-Suomi (Finlandia)</i>	<i>3</i>
<i>Länsi-Suomi (Finlandia)</i>	<i>10</i>
<i>Limburg (Holanda)</i>	<i>14</i>
<i>Devon (Erresuma Batua)</i>	<i>15</i>
<i>Gaztela-Mantxa (Espainia)</i>	<i>86</i>
<i>Extremadura (Espainia)</i>	<i>87</i>
<i>Ionia Nisa (Grezia)</i>	<i>90</i>
<i>Notio Aigaio (Grezia)</i>	<i>96</i>
<i>Algarve (Portugal)</i>	<i>100</i>





- Europako eskualdeak, erronka energetikoaren aurrean: urrakortasun maila handiko eta txikiko eskualdeak

<i>Urrakortasun maila handiko eta txikiko eskualdeak Energia</i>	<i>Indizea 0-100</i>
<i>Stockholm (Suedia)</i>	<i>0</i>
<i>Östra Mellansverige (Suedia)</i>	<i>5</i>
<i>Sydsverige (Suedia)</i>	<i>5</i>
<i>Västsverige (Suedia)</i>	<i>5</i>
<i>Sjaelland (Danimarka)</i>	<i>6</i>
<i>Border, Midland and Westwern (Irlanda)</i>	<i>61</i>
<i>Southern and Esatern (Irlanda)</i>	<i>62</i>
<i>Kibris (Zipre)</i>	<i>63</i>
<i>Yugoiztochen (Bulgaria)</i>	<i>71</i>
<i>Luxemburgo-Grand Duché (Luxenburgo)</i>	<i>100</i>





• Informazio gehiago

COMMISSION OF THE EUROPEAN COMMUNITIES

Brussels, 14/11/2008

SEC(2008) 2868 final

COMMISSION STAFF WORKING DOCUMENT

REGIONS 2020

AN ASSESSMENT OF FUTURE CHALLENGES FOR EU REGIONS

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docoffic/working/regions2020/pdf/regions2020_en.pdf

